ek!
eta kitto!
euskara elkartea
2022ko ekainak 17 · 1233. zenbakia



# SAN JUAN JAIAK
## MAGIAZ BETETA DATOZ

EUKi
www.euki.com
943 20 42 91
LAN, LEGE ETA ZERGA AHOLKULARITZA
Nahiz eta aurten ezberdinak izan,
Sanjuan zoriontsuak opa dizkizuegu!



# IRAZABAL

## clínica dental





**Ainhoa Zulueta**
Doktorea

Odontologian Lizentziatua.
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
**Leongo Unibertsitatea.**
Diplomatua Aho Kirurgian.
**Bartzelonako Unibertsitatea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**
Hortz-Estetikan Diplomatua.
**Autran Institutoa. Bartzelona.**
Etengabeko Formakuntza.
**New York-eko Unibertsitatea.**
Oklusioan Graduondoa.
**Aníbal Alonso Doktorea.**

**Astelehenetik ostiralera:**
**8:00**etatik **22:00**etara
**Zapatuetan:**
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

### Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

**JARRAI IEZAGUZU**

**Facebook**en: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**







IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1 esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

RPS 36/21

# Jarraitu gaitzazu!

YouTube




Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak antolatu eta Euskal Herriari bira emango dion bizikleta martxa Eibarrera ailegatu zen bigarren egunean, ekainaren 14an, “1.080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publikoak eta zaintza lana partekatzea” aldarrikatzeko. Ekainaren 25ean amaituko da eta Toribio Etxebarria kalean, anbulatorio parean egin zioten harrera Eibarko pentsiodunek.




Zapatuan Poesia-Musika Gauaren 9. edizioa egin zen Ibarkurutzen. Bertan adin ezberdinetako poetek hartu zuten parte eta errezitaldiak zuzeneko musikarekin tartekatu zituzten.

@etakitto

etakitto.eus

eta kitto!
euskara elkartea

**ARGITARATZAILEA**
...eta kitto! Euskara Elkartea
**HELBIDEA**
Urkizu, 11 · 20600 Eibar
**TELEFONOAK**
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285
**FAXA** 943 20 28 72
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus
**ELKARTEAREN E-MAILAK**
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**
Marisol Uriarte
**KOORDINATZAILEA**
Ana Aizpurua
**ERREDAKZIO-BURUA**
Silbia Hernandez
**DISEINUA**
Maku Oruezabal
**MAKETAZIOA**
...eta kitto! astekaria
**HIZKUNTZA ARDURA**
Maider Aranberri
**PUBLIZITATEA**
Belen Ulazia
**TELEFONOA**
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**
Ekhi Belar
**BANAKETA-ARDURA**
Idoia Labado
**TIRADA**
7.800 ale
**INPRIMATEGIA**
GERTU koop. (Oñati)
**COPYRIGHT-A**
...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA**
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

*(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

Bikain

Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundutako aldizkaria

EIBARKO UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia

# Eskutitzak

### Hurrengo alea hilaren 28an

Sanjuanak direla-eta, datorren astean ez da alerik izango eta hurrengoa ekainaren 28an kaleratuko dugu, martitzenean. Aste horretako barixakuan ez da alerik izango eta, behin uztailean sartuta, hilabete horretan 8an, 15ean eta 22an kaleratuko ditugu udako opor aurreko azkenak.

**Erredakzioa**

### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeko eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

**Erredakzioa**

# Astean esanak

Dirua ordainduz umeak izateko eskubidea asma eta eros dezakezu, baina harreman sexualak izatekoa ez? Nondik nora? Ez naiz puteroak defendatzen hasiko, baina jarrera hipokrita iruditzen zait. Izan ere, larriago deritzot emakume baten umetokiaz, sabelaz eta gorputz osoaz bederatzi hilabetez jabetu eta prozesu horren emaitza eramateari, haren alua ordu eta erdi batez alokatzeari baino. Altruismoaren kopla saltzen digute. Emakume aberats batek bere neskamearentzat ume bat mundura ekarriko duen egunean sinetsiko dut altruismoan. Hau da, Neguriko andere txit ohoragarri batek etxea garbitzen dion neska latinarentzat, mucamarentzat, ume bat izango duenean.

**JOSE MARI PASTOR, zutabegilea**

Aukeren berdintasunik ez da existitzen gure gizartean. Gaur egun, espainiar estatuan, lau belaunaldi, hau da, 120 urte behar dira %10eko txirotasunetik erdi mailako ingresoetara heldu ahal izateko. Txiro jaiotzen diren umeetatik %80 txiro hilko dira. Estatuko aberastasunaren banaketak ez dio berdintasunari jarraitzen eta kopuru horretako %70etik gora herentzietatik dator. Txirotasuna eta aberastasuna, biak ere, herentziaz geureganatzen ditugu. Rousseauk zioen bezala, giza kontratuari begira, aberastasuna eta txirotasuna mugatuta egon beharko lirateke: inork ez luke izan behar beste bat erosteko bezain aberatsa, ezta bere burua saltzera behartuta dagoen bezain txiroa ere. Horregatik nago oinarrizko errentaren alde.

**JULEN BOLLAIN, Garapenari buruzko Ikasketetan doktorea**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OINDIOKUAN** ➜ Orain arte. "Oiñdiokuan behin be galdu harek iri-probarik".
**OINDITTIK** ➜ Hemendik aurrera. "Oindittik esaten detsut, ez naizela juango ha badoia".

# 1965



## Erraldoiak eta dultzaineroak

Plazaolaren estudioko argazki honetan ikus daitekeenez, Eibarren San Juan jaiak ospatzeko ekitaldi batzuk oso errotuta daude eta ezin dira falta: Lizarrako dultzaineroak XIX. mendean hasi ziren jaietara etortzen.

## Farmaziak

**BARIXAKUA 17**
**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 19)

**ZAPATUA 18**
**EGUNEZ | Morgado** (San Agustin, 3)

**DOMEKA 19**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**ASTELEHENA 20**
**EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**MARTITZENA 21**
**EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)

**EGUAZTENA 22**
**EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)

**EGUENA 23**
**EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)

**BARIXAKUA 24**
**EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 19)

**ZAPATUA 25**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**DOMEKA 26**
**EGUNEZ | Castaño** (J. Etxeberria, 7)

**ASTELEHENA 27**
**EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)

**GAUEZ BETI,** 2022an,
**Mendinueta** (Urkizu, 6)

## Telefono jakingarriak

| | |
|---|---|
| SOS deiak | 112 |
| Pegora | 010 |
| Udaletxea | 943 70 84 00 |
| Portalea | 943 70 84 39 |
| Udaltzaingoa | 943 20 15 25 |
| Mankomunitatea | 943 70 07 99 |
| Debegesa | 943 82 01 10 |
| KIUB | 943 20 38 43 |
| Epaitegia | 943 03 34 00 |
| Iberdrola | 900 17 11 71 |
| Naturgas | 902 12 34 56 |
| DYA Larrialdiak | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Eibar Ospitalea | 943 03 29 00 |
| Mendaro ospitala | 943 03 28 00 |
| Anbulategia | 943 03 25 00 |
| Torrekua | 943 03 26 50 |
| Errepideak | 902 11 20 88 |
| Ertzaintza | 943 53 17 00 |
| Eusko Tren | 944 33 33 33 |
| Lurraldebus | 900 30 03 40 |
| Pesa | 900 12 14 00 |
| Taxiak | 943 20 30 71 / 943 20 13 25 |
| Andretxea | 943 70 08 28 |
| Alkohol. Anon. | 629 14 18 74 |
| Al-Anon / Alateen | 650 26 59 63 |
| Grupo Egun Bat (Jokozale Anonimo eta Familiak) | 699 37 75 20 |

## Hildakoak

- **Simon Altuna Iturain**. 66 urte. 2022-06-8.
- **Dolores Hernandez Garcia**. 88 urte. 2022-06-9.
- **Mariluz Del Moral Bustos**. 82 urte. 2022-06-10.
- **Jesusa Ugarte Ugarte**. 78 urte. 2022-06-10.
- **Jose Ferreira Delgado**. 72 urte. 2022-06-10.
- **Rosa Arakistain Agirregabiria**. 78 urte. 2022-06-11.
- **Maria Ezama Ibarbia**. 90 urte. 2022-06-14.
- **Enrique Gorroño Baglietto**. 65 urte. 2022-06-14.

## Jaiotakoak

- **Adam El Kanouni Frimane.** 2022-05-25.
- **Ismael Zerrad El Mohammadi.** 2022-06-3.
- **Iñigo Lombraña Bermudez.** 2022-06-4.
- **Dominion Benjamin Pullen.** 2022-06-4.
- **Unax Pena Pastor.** 2022-06-10.
- **Inhar Ibañez de Garaio Santos.** 2022-06-10.
- **Ibai Retegi Bustinduy.** 2022-06-11.



## Poesia eta musika izan ziren protagonista Ibarkurutzen

Poesia-Musika Gaua egin zen Ibarkurutzen zapatuan. Bertan adin ezberdinetako poetek hartu zuten parte, eta errezitaldiak zuzeneko musikarekin tartekatu zituzten.

Bideoa ikusteko:



## Altzoako kideak kalean ehuntzen ibili ziren

Zapatua Kalean Ehuntzeko Eguna izan zen eta Altzoa elkarteko hainbat lagun batu ziren anbulatorio pareko parkean, goiza ehuntzen emateko.

Bideoa ikusteko:



## Kultura ezberdinetara gerturatzeko pintxopotea

Gastronomiaren bidez kulturartekotasunaz gozatzeko aukera ederra izan zen zapatuan, "No voluntariado de mujeres de la luna" proiektuko kideek antolatuta Untzagan egin zen kulturarteko pintxopotean.



## Kaletarte ekimenak herriko kaleak kulturaz bete zituen

Herriko hainbat tabernarik "Kaletarte" izeneko ekimen kulturala antolatu zuten zapatuan eta, horren harira, hainbat ekintza kultural antolatu zituzten herriko kaleetan, egun guztian zehar.








## Break dance eta new style txapelketa jendetsua

Azken urteotan ohikoa den bezala, Sanjuanak aurretik egiten den break dance eta new style txapelketak irudi ikusgarriak laga zizkigun. Txaltxa Zelaiko auditorioan jokatu zen txapelketa, zapatu arratsaldean, eta ekitaldiak jendetza batu zuen.



## Artxiboen egunaz gozatzen

Aurreko asteko eguenean Untzagan proiektatu ziren Eibarko aintzinako irudien lau emanaldietan plaza bete-beteta egon zen.



## Skate erakustaldi biribila egin zuten Untzagan

Ipar skate eta surf eskolak eta Hop skate dendak bultzatutako ekimenak patinete gaineko artisten abilezia erakutsi zuen Untzagan zapatu goizean.



## Dantza urbanoen emanaldiek bete zuten zapatua

Eibarren dauden dantza eskoletako ikasleek berriz ere aho zabalik laga zuten ikustera joandako jendea, aurreko asteburuan kalean eskainitako saioetan.










**2018ko neguan lau lagunek Laponiara egindako bidaia jasotzen du Pablo Dendaluzeren dokumentalak.**

# Udako ikus-entzunezkoen emanaldiak ekainaren amaieran izango dira

Arrate Kultur Elkartearen eskutik udako gauetarako antolatu ohi duten ikus-entzunezko zikloaren emanaldiak beste batzuetan baino lehenago izango dira aurten. Ekainaren 28an hasi eta 30ean amaituko da programazioa. Saio guztiak 22:30ean hasiko dira, San Andres elizako klaustroan eta, beti bezala, sarrera dohainik izango da.

Pablo Dendaluze zuzendariaren “Arrastoan” dokumentalak zabalduko du ikus-entzunezkoen zikloa, ekainaren 28an. 2019an ekoiztutako lanak 45 minutuko iraupena dauka eta Laponiara egindako espedizioa eta sami kultura gerturatuko dizkigu. Hain zuzen ere, 2018ko neguan lau lagunek, Pablo Dendaluze, Iker Iriarte, Josu Iztueta eta Aitor Ossak Laponiara bidaia egin zuten eta han egindako eski-zeharkaldiaren kontakizuna da dokumental hau.

Ekainaren 29an, berriz, Iratxe Jaioren bi lan emango dituzte: “Onder de Vleugel” (“Hegalaren azpian”), 11 minutuko lana eta “Nire ama Roman hil da” (“Mi madre ha muerto en Roma”), 30 minutukoa. Film laburra Iratxe Jaiok eta 11 urteko haren semeak egin zuten 2020ko konfinamenduaren garaian, Herbehereetan, eta jatorrizko bertsioan emango dute, euskarazko azpitituluekin: “*Zerua*




*Berlin gainean* Wim Wendersen filmean bezala, haur misteriotsu bat Rotterdam portu-hiriko teilatuetara igoko da. Bertatik herritarren pentsamenduak aditu eta apuntatuko ditu koaderno batean. Hitzoi ahotsa emateko xedez, zuzendariak eta haren semeak dei bat egin zuten sareetan. 200 xuxurlatik gora jaso zuten 20 hizkuntza baino gehiagotan, munduak helarazi nahiko balie bezala ez zeudela bakarrik haien isolamenduan”.

Bigarren lana, berriz, Klaas van Gorkum-ekin batera 2015ean zuzendutakoa da. Bertan hainbat adituk hizpide izango dituzte Iruña-Veleiako aztarnategian jatorria duten inskripzioak: batzuek benetakotzat jotzen dituzte; beste batzuek, ordea, faltsuak direla defendatzen dute.

Eta ekainaren 30ean “Urak aske” (2021, 74 minutu), Bego Zubia Gallastegik idatzi eta zuzendutako dokumentala ikusteko aukera izango da. Naturarekiko gure harremana ardatz du lan honek, bi urtegiren hustuketatik abiatuta.





# Irai Garciak ere irabazi du Ipurterre ipuin lehiaketa

Orain dela aste bi banatu genituen Ipurterre ipuin lehiaketako sariak, Hezkuntza Esparruan, baina gaizkiulertu bat egon zen eta Irai Garciak ez zuen bere saria orduan jaso. Aldatze ikastetxeko 6. mailako ikasleari bere ikaskide eta irakaslearen aurrean eman genion saria eguaztenean. Zorionak Irai!





# Zirkoarekin agurtu dute Gurasoak Berbetan

Eguaztenean, Gurasoak Berbetan egitasmoaren ikasturte amaierako jaialdian, zirkoaren magia bertatik bertara ezagutzeko aukera eman zien gerturatu ziren haur eta nagusiei. Zirika Zirkusek eskaini zituen oreka eta akrobazia lantzeko jokoekin primerako arratsalde-pasa egin zuten.








## Harrera beroa pentsionisten bizikleta martxari

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak antolatu eta Euskal Herriari bira emango dion bizikleta martxa Eibarrera ailegatu zen bigarren egunean, martitzenean, “1.080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publikoak eta zaintza lana partekatzea” aldarrikatzeko.



## Sorbak bedeinkatuko dituzte San Juan egunean Azitainen

Gure herriko ohiturari jarraituko diote aurten ere Azitaingo elizan eta, urtero bezala, ekainaren 24an, 10:30ean, San Juan sorbak bedeinkatzeko meza berezia ospatuko dute Azitaingo elizan.

## Untzagako poesia taldekoen emanaldia gaur arratsaldean

Untzagako jubilatu etxeko “Poesía... eres tú” taldekoak kalera irtengo dira gaur arratsaldean. Untzagan elkartu eta 19:00etan hasiko dira errezitatzen, besteak beste Saioa, Foxter, Kultu, Arenal, udaletxe, Kontent eta Bossa inguruan.



## Pagatxako andrak Oporton

Argazkian ikusten dituzuen andrak ondo baino hobeto ibili ziren aurreko asteburuan Portugal aldean, Pagatxa emakume elkarteak Oportora antolatutako bidaian.

## Argi berdeak piztuko dituzte ELA gaitzaren kontrako egunean



Martitzena, ekainak 21, ELA gaitzaren kontrako eguna dela eta, argi berdearekin argiztatuko dituzte Armeria Eskola, Eibarko Bizikleta Plaza eta Ibarkurutzeko iturria.

## Juan San Martin-en omenez



Euskaltzaindiak Eibarren egingo du ekaineko osoko bilkura, hilaren 22an hain zuzen ere. Juan San Martin euskaltzalearen jaiotzaren mendeurrena beteko da egun horretan eta, horregatik, bilkura bere herrian egiteaz gain, udaletxean San Martin omentzeko ekitaldia egingo dute. Bilera arrunta izango da, 10:00etatik 12:00eatara eta jarraian hasiko da omenaldia.

## Rock festa Gaztetxean




Bihar 17:00etatik aurrera hainbat musika-taldek joko dute Eibarko Gaztetxeak “Basque Underground Metal”-en eskutik antolatu duen Rock Festan. Sarrerak 5 euro balioko du eta ogitartekoak salduko dira.



## Eibarko Txistu Eguna ospatuko da bigarrenez

Eibarko II. Txistu Eguna antolatu dute Usartza txistulari tadekoek ekainaren 26rako. Elgoibar, Deba, Durango, Gasteiz eta Zornotzako txistulariek hartuko dute parte. Goizeko 10:45ean elkartu eta talde bakoitzak ibilbide ezberdina egingo du, 11:00etatik aurrera. Bakoitzak herriko auzo ezberdinetan kalejira egin eta gero, eguerdian, 12:30ean elkartuko dira denak Untzagan eta elkarrekin ibiliko dira erdialdeko kaleetan jotzen, 15:00ak inguruan bazkaltzera joan arte.




## Eibarko Euskaraldiaren aurkezpena egin dute

Korrikaren ondoren, lekukoa hartu eta Euskaraldia antolatzeari ekiteko garaia da. Asmo horrekin, eguaztenean Euskaraldiaren 3. edizioaren aurkezpena egin zuen Eibarren Akebaik. Bestalde, Eibarren Euskaraldia antolatzen laguntzeko prest izanez gero, eibarrenakebai@gmail.com helbidera idatzi edo 943708426 telefono zenbakira deitu daiteke azalpen gehiago jasotzeko.

EIBAR Hipermerkatua | Laguntzarekin

EROSKI

zurekin

SANJUAN zoriontsuak!!!

## BARIXAKUA 17

- **17:00** XVIII. Eibarko Hiria squash sariaren kanporaketa fasea. Ipurua kiroldegia.
- **19:00** Kale antzerkia: “Indartsuak” (Zirko Txosko). Errebal Plazia.
- **20:00** Dantza: Ballet Eibarrés. Coliseo.
- **22:30** Boxeo gaua. Astelena frontoia.
- **23:00** Kontzertua: En Tol Sarmiento (ETS). Untzaga.
- **23:00/02:00** Testing Programa. Furgoneta ibiltaria, substantzia mendekotasun-sortzaileei buruzko informazioa emateko eta testak egiteko. Untzaga.



## ZAPATUA 18

- **09:30/20:30** Jolasen simulazio tailerra (modelismoa, eszenografia eta mahai-jokoak), Odisea elkartearen eskutik. Errebal Plazia.
- **10:00** Eibarko kuadrillen I. Futbol 7 txapelketa. Unbeko goiko zelaia.
- **10:00/20:00** XXXVIII. Extremadurako Herrialde-Elkarraldi Jardunaldia. Arrate.
- **10:00** San Juan pilota txapelketa. Astelena frontoia.
- **12:00** XXXIV. Eibarko Hiria Bolo Palma txapelketa. Ipuruako bolatokia.
- **16:00** XVIII. Eibarko Hiria squash sariaren finalak. Ipurua kiroldegia.
- **19:00** Kale antzerkia: “Benditas” (Mono Habitado). Untzaga eta inguruan.
- **20:30** Kontzertua: Sostoa abesbatza eta Oskarbi folk taldea. Coliseo.
- **22:00** Kontzertua: Xabier Aburruzaga eta Tanxugueiras. Untzaga.
- **23:30/02:30** Alkohol eta drogen kontsumoaren gaineko informazio eta prebentziorako karpa. Untzaga.






## DOMEKA 19

● **09:00/14:30** XXI. Eibarko Hiria txori kantarien txapelketa, JJJ Memoriala, (eguraldi txarra izanez gero, Altzubarrenen -Azitaingo frontoian- egingo da). Arrate.
● **09:30** LXXXVI. txirrindularitzako San Juan Sari Nagusia. Toribio Etxebarria.
● **12:30** Herri-kirolak: Euskal Jaialdia. Untzaga.



## MARTITZENA 21

● **19:00** Kontzertua: Untzagako jubilatuen abesbatza. Coliseo.

## EGUAZTENA 22

● Egunean zehar, barraken prezioa 0,90 eurokoa izango da.
● **17:00/20:00** Umeentzako puzgarriak. Untzaga.
● **19:00** Umeentzako antzerkia: “Tuti Clowns Petitxou” (Gari, Montxo eta Jose Lontxo pailazoak). Untzaga.








# EGUENA 23

- **10:30** Santuari zapia jarriko zaio, Kaleetan kantuz taldearen laguntzarekin. San Andres egoitza (Ospitala).
- **11:00** Sanjuanetako Zortzikoa, Usartza Txistulari Bandaren eskutik eta musikarien laguntzaz. Untzagan hasita.
- **12:00** Kuadrillak Untzagan bildu eta, Ustekabe fanfarrearekin, kalejira Urkizuraino.
- **13:00** Lizarrako Dultzaineroei ongietorria, Estazioan, eta kalejira, Untzagaraino.
- **13:30** Udaletxetik, pregoia eta jaiei hasiera emateko txupinazoa.
- **13:45** Sanjuanetako kartel lehiaketaren eta alkohol gehiegikeriaren kontrako pegatina lehiaketaren sari banaketa. Udaletxea.





- **17:00/20:00** Klarion tailerra (Lekim Animazioak). Untzaga.
- **17:30/20:30** Umeentzako puzgarriak. Urkizu.
- **19:00/23:00** Botiltzar programa, aisia-espazioetan alkohol kontsumoaren gaineko kontzientziazio eta prebentziorako. Untzaga.
- **19:00** Lizarrako erraldoi eta buruhandien eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira, Urkizutik Untzagara.










IZASKUN
HARATEGIA
San Juan zoriontsuak!
Errebal, 23 – Tel. 943 201 729

- **19:00** Kalejira Irulitxa fanfarrearekin. Untzagatik abiatuta.
- **19:00** Kale antzerkia: “Sonámbulo” (Antón Coucheiro). Untzaga.
- **19:00** Salbea Parrokiako abesbatzarekin. San Andres eliza.
- **23:00** Nele Dantzaren emanaldia eta San Juan Sua. Untzaga.
- **00:00** San Juan Kantua eta, jarraian, Danborradaren Alardea, Eibarko Cielito Musika Bandaz lagunduta. Untzaga.
- **00:15/04:00** Berbena Lisker taldearekin. Untzaga.





GAUR ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren, 9 Tel. 943 20 62 40
nagore@egaur.com

Gestoria Alonso
San Agustin, 5 - BEHEA
618 25 93 44
943 20 20 17
mcalonsoeibar@gestores.net

STYLO
Ane Elizburu
Bidebarrieta, 16
943-203948
ILEAPAINDEGIA

Bidebarrieta, 8
Twins
tel. 943 05 60 82 • www.twinseibar.com

## BARIXAKUA 24

- **08:30** Kalejira Dultzaineroekin.
- **10:30** San Juan sorbak bedeinkatzeko meza. Azitaingo eliza.
- **11:00/14:00** eta **17:00/20:00** Jolas-parkea: "Puck eta haren tropa" (Tomb Creatius). Untzaga.
- **12:00** San Juan tiro txapelketa. Arrate.
- **12:00** Kantatutako meza, Parrokiako abesbatzarekin. San Andres eliza.
- **12:45** Eibarko Cielito Musika Bandaren San Juan kontzertua. Toribio Etxebarria (euria eginez gero, Errebalen).
- **18:00** III. San Juan City secrets, makro-ginkana kuadrilentzat (Itzamnaren eskutik). Eibarko Bizikleta Plaza.
- **19:00** Kale antzerkia: "Tanque Gurugu" (Asaco). Anbulatorioko parketik Untzagara.
- **19:00** Umeen Danborrada. Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin, Urkizutik Untzagara.
- **20:30** Umeen pregoia eta Alardea. Untzaga.
- **22:00** Erromeria Jainaga eta Narbaizarekin. Untzaga.
- **23:30** Soka Dantza Usartza Txistulari Banda eta Kezka Dantza Taldearekin. Untzaga.
- **00:00** Suzko erroberak Global Foc SL Pirotecniaren eskutik.
- **00:15/03:00** Berbena Jamaica Show orkestrarekin. Untzaga. - 19:00etan, erdigunean, "Por hacer un favor" kale antzerkia Trapu Zaharra konpainiarekin.













## ZAPATUA 25

● **08:30** Kalejira eta goiz-erestia Lizarrako Dultzaineroekin.
● **11:00/14:00**etara eta **17:00/20:00** Jolas parkea: "Tonet gizonaren bidaia bitxia" (Tomb Creatius). Errebal Plaza.
● **11:30** San Juan XXVII. marmitako lehiaketa. Untzaga.
● **12:00** Eibarko helize tiro Sari Nagusia. Arrate.
● **17:30/20:30** Umeentzako puzgarriak. Urkizu.
● **18:00** Bergarako Erraldoi taldearen eta Lizarrako Dultzaineroen kalejira. Urkizutik.
● **18:00** Kalejira Africa Baj Yay taldearekin. Untzagatik.
● **19:00** Kale antzerkia: "Por hacer un favor" (Trapu Zaharra). Erdialdean.
● **19:30** Kontzertua: Trío Medianoche, Americanus habanera laukotea eta Sergio Sanabria. Untzaga.
● **23:00** Suzko erroberak Pirotecnia Vulcanoren eskutik.
● **23:30/02:30** Berbena Cuarta Calle orkestrarekin. Untzaga.









## DOMEKA 26

● **11:00** Eibarko II. Txistu eguna, Kalejirak herriko auzoetatik.

## ASTELEHENA 27

● **16:30** Umeentzako txokolate-jana.
● **17:00** Umeentzako jolasak.
● **19:00** Naita kontu eta kantak emanaldia. Karmengo parkea.




## MARTITZENA 28

● **12:00** Toka eta igel-toka txapelketa.
● **18:00** Mariachi Ismael taldearen musika emanaldia.
● **19:30** "Ganas de reñir" antzezlana (La Novena).
● **20:00** "Eres tu Eibar" poesia emanaldia.
● **20:45** Beheko Tokia dantza taldea. Beheko Tokia.
● **21:45** Dantzaldia Tukan taldearekin eta Beheko Tokia dantza taldearekin. Karmengo parkea.

## EGUAZTENA 29

● **12:00** Meza, Eibarko Koro Gaztearekin. Karmengo eliza.
● **13:00** Toka eta igel-toka txapelketaren sari banaketa eta piskolabisa. Karmengo parkea.

## ZAPATUA 2, Uztaila

● **16:00** XXXVI. Eibarko Hiria Xake partida azkarren txapelketa, Jose Mari Kruzetaren Oroimenez. Untzaga.









# Ondo pasa Sanjuanetan!






















# Mundu guztiko doinuak izango ditugu jaiak girotzeko

Sanjuanetako giroa berotzen doa eta asteburu honetan hasiko den eskaintza musikalak festa piztuko du behin betiko. Eibartar askok gogo handiz itxaron duen kontzertua izango dugu gaurkoan En Tol Sarmiento (ETS) taldearen eskutik. Arabako taldeak eztanda egin du azken urteotan eta batetik bestera dabiltza ska-rock musika alaia eskaintzen. Eta zer hobeago horrelako musika alaia Sanjuanei hasiera emateko? Iñigo Etxezarreta abeslariak kontzertuari buruzko xehetasun gehiago eman dizkigu hurrengo orrietan.

ETS-ren kontzertuarekin indartsu hasiko dugu San Juan jaien aurreko asteburua, baina apostua bikoiztu egingo da bihar. Izan ere, saio bikoitza izango dugu. Lehenik, 20:30ean, Sostoa abesbatzak eta Oskarbi folk taldeak kontzertua eskainiko dute Coliseo antzokian. Donostiako taldeak 55 urtetik gora daramatza musikaren munduan eta 700 kontzertutik gora eskaini ditu, hainbat disko kaleratzeaz gain.

Plater nagusia, ostera, 22:00etan iritsiko da Tanxugueiras talde galiziarraren eskutik. Pandereteira hirukoteak beste maila batera eraman du Galiziako musika tradizionala eta Eurovision lehiaketan partehartzeko ateetan geratu ziren, nahiz eta publikoaren gehiengoarentzat talderik gustukoena izan.

Galiziarrak ez ziren Eurovisionen aritu, baina euren ibilbideak gorakada nabarmena izan du harrezkero eta modan dagoen taldea da gaur egun. Beraz, ez harritu Untzaga goraino arte betetzen bada, asko direlako hirukotearen musikaz gozatu nahi dutenak.

**Gaur gauean En Tol Sarmiento taldeak joko du eta bihar Tanxugueiras taldearen txanda izango da**

## Musika goizetik gauera

Asteburuko eztandaren ondoren, astea poliki-poliki hasiko dugu eguenetik aurrera jai giroan betebetean murgiltzeko. Horrela, astelehenean Untzagako Jubilatuen Abesbatzak kontzertua eskainiko du Coliseo antzokian, 19:00etan.

Eguena, San Juan bezpera, goizetik hasiko dugu musika giroarekin. 11:00etan, Untzagatik hasita, Usartza Txistulari Bandak, musikarien laguntzarekin, Sanjuanetako Zortzikoa eskainiko du.

Egunean zehar ekintza asko egongo dira, baina arratsaldean eta gauean musikak bere tartetxoa izango du. Arratsaldean, 19:00etan, San Andres parrokiako abesbatzak Salbea eskainiko du. Eta gero, 00:15etik 04:00ak arte, azken urteotako Sanjuanetan falta izan ez den talde eibartarra izango dugu gaua girotzen: Lisker.

## Bixamonari aurre musikarekin

San Juan egunean, gauez izango ditugu musika ikuskizunak. 22:00etan, eta jaietan duten zitarekin zintzo bat eginez, Jainaga eta Narbaiza Untzagan egongo dira erromeria eskainiz. Bixamona atzean lagatzeko aukera ederra.

Iluntzean, bestetik, Sanjuanetan gurekin izan ohi dugun beste talde batek eskainiko du berbena: Jamaica Show orkestrak. Talde nafarrak 25 urtetik gora daramatza han eta hemengo jaiak girotzen eta, horretarako, estilo ezberdinetako abestiak eskaintzen dituzte, denon gustuko ikuskizunak eskaini nahian.

Hilaren 25ean, zapatua izanik, jai giroak bizi-bizirik jarraituko du. Musika arratsaldean hasiko da, 18:00etan, Africa Baj Yay taldearen





**Mundu guztiko doinuak izango ditugu entzungai Sanjuanetan.**

eskutik. Afrikar jatorriko taldeak herriko kaleak girotuko dira bere erroetako doinuak eskainiz.

Afrikatik Latinoamerikara joko dugu 19:30ean. Izan ere, Trio Medianochek kontzertua eskainiko du Untzagan Americanus habanera laukotearen eta Sergio Sanabriaren laguntzarekin.

Jaiak dantzan amaitzeko, Cuarta Calle orkestrak berbena eskainiko du Untzagan, 23:30etik 02:30era. Asturiasko taldea 2011n sortu zen eta publikoa gozaraztea du helburu.

**Musika Zaizoi tabernan**

San Juan jaiekin bat egin nahian, Bittor Sarasketan dagoen Zaizoi tabernak zenbait kontzertu eskainiko ditu eguenetik zapatura arte. Horrela, San Juan bezperan Kvalvika eta Braulio taldeek joko dute; 24an Judas Argarate eta We AreApes, Hello! izango dira protagonista; eta 25ean Mise En Abyme eta Zapatu Beltza. Saio guztiak 19:00etan hasiko dira.













# Oskarbi taldea Coliseo antzokira bueltatuko da bihar 54 urteren ostean

Euskal kantak maite ditugunok hitzordu berezia daukagu asteburu honetan Eibarren; izan ere, OSKARBI talde ezaguna Coliseo antzokiko eszenatokira bueltatuko da 54 urte ondoren. Eurekin batera Sostoa abesbatza izango da. Ekitaldia zapatuan, ekainak 18, izango da, 20:30etik aurrera.

Zapatukoa, zalantza barik, ekitaldi berezia izango da Oskarbi taldearentzat, batez ere hasieratik dauden kideentzat: izan ere orain dela 50 urte baino gehiago, 1968an, Radio Juventud de Eibar Irratiak Coliseo antzokian antolatutako Euskarazko Kantuaren Lehen Lehiaketa irabazi zuen Oskarbik. Eibartar askok gogoratuko duzuen lehiaketa garrantzitsua izan zen eta bultzada handia eman zion sortu berria zen Oskarbi taldeari. Taldeko Jose Luis Trekuk esan digunez, "gu izan ginen irabazleak, bigarren lekuan Ameslariak taldea geratu zen, eta hirugarren lekuan Urritxindorra. Oso gazteak ginen, 17 urte inguru besterik ez genituen, eta lehiaketa irabaztea izugarria izan zen. Bakarkako kategorian Estitxuk irabazi zuen".

Oskarbi taldea erreferentziazko taldea da euskal kantagintzan. Bere garaian Ez dok Amairu mugimendu historikoan parte hartu zuen. Orain dela 55 urte sortua, 13 disko dauzka euskal taldeak bizkarrean. Azken aldian abesbatza askorekin izan dituzte kontzertuak eta oraingoan Eibarrera datoz Sostoa abesbatzarekin batera abestera.

Euskal Herriko hainbat abesbatzarekin egiten ari diren kontzertuetako eskema jarraituko dute, hau da, kanta batzuk bakarrik abestuko dituzte eta beste batzuk Sostoarekin.

**Ez Dok Amairu**

Jose Luis Trekuk esan digunez, Ez Dok Amairu sortu zutenen artetik bakarrik Oskarbik eta Benito Lertxundik jarraitzen dute aktibo. Ez Dok Amairuk 1965 eta 1972 bitartean jardun zuen. Euskal Herriko kultura mugimendu abangoardista izan zen, lau urte lehenago abiatutako Euskal Kantagintza Berriaren barruan sortua. Hainbat artistek osatu zuten; abeslariek eta idazleek nagusiki. Une hartan hain zapalduta zegoen euskal kultura suspertu eta berritu zuen.

Orain arteko ibilbide luze honetan Oskarbi taldeak beti euskara hutsean eta euskal kantagintza lantzen jardun du. Bide horri eutsi diote, eta, horretaz gain, sorkuntza propioa ere badaukate, batez ere azken diskoan. Gaur egun taldean beteranoak baina gazte sortzaileak ere badaude. Horregatik ez da harritzeko azken diskoan sorkuntza propioak bere lekua izatea. Euren musikarekin gozatzeko aukera paregabea biharkoa!




**Bihar, ekainak 18, Oskarbi talde ezagunak kontzertua eskainiko du Coliseo Antzokian. Eurekin batera Eibarko Sostoa abesbatzak abestuko du.**

# AUTOEN GEHIGARRIA

**2022ko EKAINA**

## Iritsi da bidaiatzeko sasoia

Hainbat faktorek eragiten dute udan matxurak ohikoagoak izatea. Horien artean nabarmenena da urte-sasoi horretan egiten ditugula joan-etorri luzeenak eta zama gehiagorekin autoan, baina beroak eta beste alderdi batzuek ere eragiten dute. Ikusiko dugu faktore horiek nola zaindu udan autoarekin disgustuak saihesteko.




LOURDES URZURIAGA
987 ZENBAKIDUN DELEGATUA
Sostoa, 1 - behea (EIBAR)
943 82 04 49
688 871 717
lurzuri@mapfre.com
MAPFRE
teCuidamos

ZURICH
Lejardi S.L. Aseguru Agentzia
Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

## AIRE GIROTUA: NOLA EZ HONDATU UDAN



Aire girotua funtsezkoa da seguru gidatzeko, batez ere udan eta tenperatura altua den lekuetan. Istripu-arriskua murrizteko, komeni da tenperatura egokian gidatzea, 21 eta 23 gradu bitartean. Azpitik, hotz egingo du, eta horrek zurruntasun handiagoa eragingo du muskulaturan, Aitzitik, autoan bero handiegia egiten badu, gure erreakzio-gaitasuna jaitsiko da, erreflexuak eta kontzentrazio-ahalmena murrizten direlako.

Gaur egun, gutxi dira aire giroturik ez duten autoak. Sistema honek esfortzu handiagoa eskatzen dio motorrari. Egoera ezin hobean kontserbatzea ezinbestekoa da arazo mekanikoak saihesteko eta tenperatura egokian eroso bidaiatu ahal izateko.

Lehenik eta behin, uhala edo "korrea" auxiliarra mantendu behar dugu. Aire girotua konektatzean, konpresorea arrastatu behar du. Egoera onean ez badago, irrist egin dezake (eta horrek kirrinka mingarria eragiten du azeleratzean) edo zatitu ere egin daiteke.

Beste puntu bat filtroa edo iragazkia da. Seguruenik, ia itxita egongo da udaberriko hauts eta polenarekin eta neguko hezetasunarekin. Aire egokituaren beste akats bat fluido hozgarriaren galera da. Gas horren zati bat galdu badugu, sistemak errendimendua jaisten du eta beharrezkoa ez den ahalegina eskatzen dio konpresoreari. Onena da zentro espezializatu batean aire girotuaren presioak berrikustea.

**Autoan bero handiegia egiten badu, gure erreakzio-gaitasuna jaitsiko da**













**KONTUZ KOTXEAREN UDAKO «BEROALDIEKIN»**

Udan sarritan gertatzen den beste arazoetako bat motorraren tenperaturari dagokiona da. Garrantzitsuena bidaia hasi aurretik hozgarriaren eta olioaren maila aztertzea da, eta, aire girotuarekin bezala, aurreko airearen sarrera ahalik eta garbien mantentzea.

Martxan, garrantzitsua da noizean behin motorraren tenperatura berrikustea. Igotzeko eremuetan, ez ibili martxa luzeetan.

Erreserbako pare bat hozgarri litro eraman beti, gerta daitekeenagatik.

Aztertu gomazko zorroen edo mangitoen egoera: puztuta edo lehortuta baude, aldatu.

**PNEUMATIKOAK: OPORRETAN SARRIAGO LEHERTZEN DIRA**

Udan askoz ere sarriago lehertzen dira pneumatikoak, tenperatura handiagoa jasaten baitute. Aztertu presioak bidaiaren aurretik. Pentsa dezakezunaren kontra, presioa zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta errazagoa da lehertzea, kubiertaren alboaren deformazioak marruskadura eta bero handia sortzen baitu. Gainera, erregai-kontsumoak gora egiten du.

## Bidaia hasi aurretik pneumatikoen presioa aztertzea komeni da














### AUTOAREN BALAZTAK ETA BEROA

Oporretan, gure autoa gainkargatu ohi dugu ekipajearekin. Pisua handitzeak eta kanpoko tenperatura handiagoek gehiegi berotzen dituzte balaztak. Ez garbitu autoa bidaia amaitu bezain laster. Diskoak bero daudenean bustitzen baditugu, tolestu egin daitezke; ondoren, balaztatzean pedalean bibrazioak nabarituko ditugu, “frenoen alabeoa" esaten zaiona.

Balazta-likidoa ur asko xurgatzen duen alkohol batez osatuta dago. Denborarekin, uraren proportzioa oso handia da eta errendimendua txikia. Balazta-likidoak bi urte baino gehiago baditu, irakin ez dezan eta balaztarik gabe gera ez gaitezen, aldatu.

Motorraren balazta erabili jaitsiera luzeetan gurpilenak ez gehiegi kargatzeko.

### TURBOAK UDAN SUFRITZEN DU

Turboak beste edozein osagaik baino gehiago sufritzen du udako beroekin. Askok uste dute etxera iristen denean motorra minutu batez piztuta utzi behar duela hoztu ahal izateko. Hori ondo dago, baina helmugara iristen garenean, normalean abiadura txikian ibiltzen gara hirian eta turboa ez dago beroegi. Gasolindegi edo bidesari batera iristean bat-batean itzaltzea da arriskutsuena. Erritmo onean gatoz eta turboa gori-gori dago. Une horretan bat-batean gelditzen bagara, gailua hoztu eta lubrifikatzen duen olioa ikatz bihurtzen da (egosi egiten da) eta turbinaren ardatza txikitzen du. Autobia erdian gelditzen bazara utzi autoa piztuta pare bat minutuz, turboa hozteko.

### GIDARIA ZAINDU

Autoak ez ezik gidariek ere gehiago sufritzen duten udan; gidariak eta bidaiariek askoz estres handiagoa dute beroarekin. Nekea saihesteko, kolore argiko eta kotoizko arropa janztea komeni da, transpirazioa errazten duena eta erradiazio handirik xurgatzen ez duena.

Edari freskoa eraman eta hidratatu zaitez maiz; deshidratazioak erreflexu asko galtzea eragiten du.

Saihestu eguzkitan aparkatzea eta, beste erremediorik ez badago, kristalak eta bolantea babestu, autoan sartzean erre ez zaitezen.

**Autobia erdian gelditzen bazara utzi autoa piztuta pare bat minutuz, turboa hozteko**




HEMEN DUZU ZURE
943 20 67 76
IRAGARKIRAKO TOKIA


28. urteurrena
Kultu:
Zuloagatarren, 3 943 20 84 39
SAN JUAN ZORIONTSUAK!!
HORRETARAKO GAUDE-ETA!!
Pintxoen
alardearen
erreinua!


RPS 181/19
aldaz
hortz klinikak - clinicas dentales
943 36 63 77
LASARTE - TOLOSA- ELGOIBAR
TRATAMENDU GUZTIAK
ZENTRO BEREAN.
LEHENENGO BISITA ETA
RADIODIAGNOSIA DOAN.
ODONTOLOGIA ETIKOA.
Zure irribarrea
egingo
dugu

# “Azken zortzi urteetan inoiz espero ez genuena bizitzen ari gara”

**IÑIGO ETXEZARRETA** • En Tol Sarmiento >>>

En Tol Sarmiento (ETS) taldeari dagokio San Juan jaiei hasiera musikala emateko ardura; baina, jai-giroan bikain aritzen den bandarik bada, Ekorako (Araba) taldea da. ETS-ren musika alaiak Untzaga girotuko du gaur gauean, 23:00etatik aurrera, eibartar askok hainbeste itxaron duten kontzertuan.

Eibarren estreinako kontzertua izango dute 2005ean sortu zen ETS taldekoek. Iñigo Etxezarreta ETS-ren abeslari eta gitarrajolea gogotsu dago gaueko zitaren aurrean eta taldeak azken boladan bizi duen arrakastaz gozatzen ari dela esan digu.

**San Juan jaiei hasiera emateko ardura duzue, baina zuen musikak oso aproposa dirudi jai-giroa pizten joateko, ezta?**
Gu behintzat gogo handiarekin goaz Eibarrera. 17 urte daramatzagu talde bezala eta oraindik ez dugu han jo! Gainera, udako lehen kontzertua izango da guretzat Euskal Herrian eta Untzagan jendea biltzea espero dugu.

**Jendea, behintzat, gogotsu dago zuen ikuskizunaren zain.**
Eibarko kontzertuari buruz bizpahiru komentario jaso ditugu eta badirudi kontzertu handia izango dela. Pantaila erraldoiak jarriko dituzte eta ahalik eta kontzertu onena eskaintzen saiatuko gara.

**Hara eta hona zabiltzate, uda kontzertuz beteta datorkizue... ETS-ren momenturik gozoena bizitzen ari zarete?**
Bai, duda barik! Azken zortzi urteetan inoiz espero ez genuena bizitzen ari gara. Azkeneko diskoa ezin izan genuen behar bezala aurkeztu, 2020an herrietako festa guztiak bertan behera geratu ziren eta iazko emanaldiak oso bereziak izan ziren, jendeak eserita ikusi behar izan zituelako. Orduan, taldearen azken gorakadatik, aurten izango da lehen aldia udan zer gertatzen den ikusiko duguna. Beti izan dugu jende asko plazetan. Herriko jaietako taldea izan garenez, oso gustura sentitu gara udako jaietan. Uste dut hori dela gure leku nagusia, gure etxea. Aurten, ostera, zerbait berezia biziko dugula uste dut. Ez dakit nola kudeatuko dugun, nola amaituko dugun uda; baina sareetan ikusten dugunez eta heltzen zaigun informazioari begiratuta, berezia izango da.

**2005an Ekoran musika-taldea sortzeko bildu ziren hiru nerabeek hau guztia gertatuko zela aurreikusten zuten?**
Ezta gutxiago ere! Gainera, elkartu ginenean ez ginen musikariak ere. Hiru lagun besterik ez ginen. Urte hauetan egin dugun lanean dago taldearen arrakastaren gakoa. Lehenengo zazpi edo zortzi urteetan kontzertuetara lagunak bakarrik etorri izana asko baloratu dugu, zerotik hastea zer den badakigulako eta, batez ere, lana, konstantzia, diziplina... Saiatuz eta saiatuz aukera heltzen da. Jendeak ‘zortea’ berba erabiltzen du, baina hainbeste urtez lan egin ondoren gauzak zerbaitengatik heltzen direla uste dut. Beraz, bizitzen ari garena 15 urtetan egindako lanarengatik jasotako oparia dela sinestu nahi dut.

Informazio gehiago
taldearen webgunean:

**Lana hor dago, baina zerk engantxatu du jendea zuen musikara?**
Abestien melodietan dago gakoa. Egiten dugun musika ez da teknikoki zailegia eta horretara ere jolasten dugu. Abesti zailagoak egiteko gaitasuna izan arren, lana melodia politak sortzera bideratzen saiatzen naiz. Horrez gain, abestia nola janzten duzun, letrak... denak du garrantzia jendearen bihotzetara heltzeko.
**Hasieran musikariak ere ez bazineten, demaseko bilakaera izan duzue!**
Beno, gutako batek bazuen formakuntza musikal pixka bat eta gero taldera etorri diren kideak kontserbatoriotik pasatakoak dira. Musika-ikasketak egin dituzten musikarienganako errespetu handia dut, baina plazako musika egiten dugunok beste zerbaitetan enfokatu behar dugula uste dut. Egia da hasieran lotsaz ibiltzen ginela, hainbeste jende biltzen zelako nolabait musika erraza egiten dugunean, baina musika popularra hori ere bada.
**Agian zailena lortzen duzue: Jendearen bihotzetara heltzea.**



Edo jende kopuru handi bati gustatzen zaizkion abestiak sortzea. Horretan ez dago teknikarik edo azalpenik, intuizio kontua da. Kasualitatez, niri gustatzen zaidan musika eta egiten ditudan melodiak jendeari gustatzen zaizkio. Ahalmen edo zorte hori dut.






# Errautsetatik berriro berpizten den sua

Hondoa jotzen duenean berriz altxatzen dakien herria da Eibar. Gerrako bonbardaketek herria suntsitu ondoren, ia berria eraiki genuen; eta orain, beste neurri batean bada ere, pandemiak laga duen egoeratik animoz ari gara irteten.

Eibarrek ez du etsitzen eta, hain zuzen ere, horrek inspiratu du Nerea Lodosa San Juan suaren aurretik egingo dituzten dantzak prestatzeko orduan. “Nerea Alustiza historialariarekin elkartu nintzen eta berak, Eibarko historia ezagutzeko bisita gidatuak eskaintzen dituenez, bonbardaketen eta inguruko kontuen berri eman zidan”, azaldu digu. “Gerra ondoren Eibar birrinduta geratu zen, baina ondoren demaseko industria garatu genuen, inon ez bezala”.

Historialariak kontatutakoarekin, Lodosari Fenix hegaztia etorri zitzaion burura. “Beti izan dut buruan Fenix hegaztiaren inguruko dantza bat egitea eta orain momentu aproposa iruditu zait”, diosku. “Azken urteak oso zailak izan dira pandemiaren ondorioz eta oraindik ere, nahiz eta beste maila batean izan, tristura eragiten diguten gauzak gertatzen ari dira inguruan: El Corte Ingles itxi dute, Eibar KE-k ez du mailaz igotzea lortu... Triste gaude, baina Eibarrek duen espiritua Fenix hegaztiarekin alderatzen da, suspertzeko gaitasuna dugulako”, bere iritziz.

**Ehun dantzaritik gora**

Lodosak gidatzen duen Neledantza taldearen ikuskizuna 23:00etan hasiko da, eguenean, Untzagan. Ehun dantzari inguruk hartuko dute parte bertan eta sei koreografia eskainiko dizkigute, bata bestearen atzetik. “Saioak 15 minutu inguru iraungo du”, bere berbetan.

Ikuskizunaren hasieran testu bat irakurriko dute eta horretarako SER irrati-katekoen laguntza jaso dute. “Gero, antzinako Eibar irudikatuko dugu, jendea hara eta







San Juan bezperan ehundaka lagun bilduko dira Untzagan San Juan suaren inguruan. MALEN JAINAGA

hona pasiatzen. Dantza horretan eztanda egingo dugu eta konfinamendua etorriko da ondoren. Maskarak agertuko dira, gure bizitzan beste elementu bat bezala agertu ziren konplementuak, eta pandemiaren ondorioz hil direnak gogoratuko ditugu. Horren ondoren, Fenix hegaztia azalduko da eta, egundoko musikaz lagunduta, gimnasia erritmikoko neska bat zinta gorri batekin irtengo da. Orduan, Neomak taldekoen laguntzarekin sorginak ekarriko ditugu eta, azkenik, goian amaituko dugu Su Ta Gar-en musikaren laguntzarekin", aurreratu digu.

Neledantzako kideek zenbait ikuskizun eskaini dituzte azken aldian eta, gelditu barik ibili direnez, "inoiz baino azkarrago" ari dira prestatzen egueneko ikuskizuna Lodosak esan digunez, "aste honetan jo eta su gabiltza".

Dena dela, zuzendaria ez dago bakarrik, "laguntzaile bikainak" baititu. Horrela, Irene Vazquezek, Lide Agirrek, Ibone Garciak, Jule Gisasolak eta Miren Ferrerok koreografia sortzen lagundu dute eta bidelagun dira prozesu guztian zehar.

**Fenix hegaztia izan da Neledantzaren inspirazioa dantzak prestatzeko orduan**

**Omenduek piztuko dute sua**

Dantzen ondoren, San Juan sua piztuko dute jaietako omenduek. Horretarako, ...eta kitto! Euskara Elkarteak honako hauek gonbidatu ditu: J.D. Arrate eta Eibar Eskubaloia, Jesus "Txus" Alzaga, Manu Aguirre, Maite Arroitajauregui, UEU, Ekingune, Aspace, Arrate Kultur Elkartea eta Mikel Oyarzabal (azken honek ezingo du parte hartu).






# Txosnagunea hankaz gora jartzeko moduko egitaraua

Bi urte San Juan jaiak ospatu barik urte asko dira eta Eibarko Jai Batzordeak inoiz baino gogo gehiagorekin prestatu du jaietako egitaraua. "Txosnagunea hankaz gora jartzera goaz", diotenez.

Hilaren 23tik 26ra mila ekintza prestatu dituzte, baina eurek askotan esan bezala, "ez da magia, herri-lana da". Horrela, martxoan hasi zituzten egitaraua prestatzeko lanak eta lehenengo bilera irekiak arrakasta handia izan zuen. "Jende asko bildu zen Kultun", azaldu digute Eibarko Jai Batzordeko Haizea Lasagabasterrek eta Maitane Fariñasek. Normala, San Juan jaiez behar bezala gozatzeko dagoen gogoa kontuan hartuta, eta ondoren ere, nahiz eta parte-hartzaile kopurua murriztu, jende berriak parte hartu duela diote jai batzordetik. "Poliki-poliki jende gazteagoa hurbildu da, baina normala da hasiera batean lotsa ematea", zehaztu digute.

### Txosnak Txaltxa Zelaian

Pandemia aurreko azken urteotan bezala, Txosnagunea Txaltxa Zelaian jarriko dute. Zazpi txosna egongo dira guztira elkarte eta eragile hauen eskutik: Jaixak Herrixak Herrixandako, Matraka!, Ernai, Gaztetxea, Eibartarrak FT, Sare eta EH Bildu.

Txosnak San Juan bezperan zabalduko dituzte, 14:30ean, baina aurretik kamisetak banatuko dituzte eta, herri-bazkarirako berotzen joateko, trikipoteoa egingo da herriko kaleetan.

Artikulu hau argitaratzen denerako herri-bazkarirako sarrerak agortuta egongo dira seguruenik. Beraz, esan daiteke 700 lagun bilduko direla Untzagan elkarrekin bazkaltzeko.

Ez da egingo den bazkari bakarra izango. Izan ere, ekainaren 25ean presoen aldeko bazkaria egingo da 14:30ak inguruan. Bertan parte hartzeko jai batzordearekin harremanetan jarri daiteke edo, bestela, txosnetan galdetu daiteke.

### Mota askotako ekintzak

Eibarko Jai Batzordeak mota askotako ekintzak prestatu ditu. "Gustura gaude prestatu dugun egitarauarekin", esan digute. Eguenean, adibidez, herri-bazkariaren ostean ohikoak diren jolasak egingo dira eta goizeko orduetan, 04:00etan, berritasun bat: irrintzi-txapelketa. 23an kanporaketak jokatuko dira eta finala hurrengo egunean izango da.

Hilaren 25ean bi berritasun izango ditugu. Batetik, 19:00etan, twerking tailerra eskaniko dute eta gero, 21:00etan, giza futbolin txapelketa jokatuko da. "Barre asko egingo dugula uste dugu", diote jai batzordekoek gogotsu.

Musikak, nola ez, protagonismo berezia izango du egun guztietan. Eguen arratsaldean, ondo jan eta jolastu ondoren, 19:30ak inguruan, Elektro Txufla elektrotxarangak kalejira eskainiko du. Eta gauean, San Juan suaren ondoren, Kete Kalles eta Enziska 2 taldeek kontzer-

PINTURAS ARRATE S.L.
• Nexa Autocolor
• Pintura industriala
• 3M produktuen banatzailea
MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Zabala Comercial
OSTALARITZA ARTIKULUEN SALMENTA ETA MUNTAIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA KONPONKETA
Jose Antonio Gisasola, 6 Tel/Fax. 943 20 88 57
comercialzabala@outlook.com

tua eskainiko dute. Kete Kalles talde kataluniarrak runba, funk, hip hop eta soul doinuak lantzen ditu; eta Alegria-Dulantziko Enziska 2 taldeak Kaos Etiliko, EH Sukarra, La Polla Records eta beste hainbat talderen bertsioak egiten ditu.

24an, barixakua, Feten Señoren kamioiak herriko kaleak zeharkatuko ditu 19:00etatik aurrera eta gauean, 23:00etan, kontzertu hirukoitza egongo da Silitia, Liher, eta Maixa eta Malakiasen eskutik. Silitia bikote bilbotarraren estiloa zaila da deskribatzen: musika egiten dute eta kitto. Liher taldeari buruz asko esan daiteke, baina Lide Hernandoren ahotsa entzutea nahikoa izan daiteke talde honek duen dimentsioa ulertzeko. Eta azkenik, Maixa eta Malakiasen izango ditugu Txaltxa Zelaian, jendea dantzan jarriko eta aho zabalik lagako duen proposamenarekin.

Zapatuan, presoen aldeko bazkariaren ondoren, 17:00ak inguruan, Zumarragako Alarma Morea hirukoteak bazkalostea gi-



**Ia denetik egin ahal izango da Eibarko Jai Batzordeak prestatu duen egitarauarekin.**












# Gazte Egunak 15 urte beteko ditu aurten eta ekitaldi berezia egingo da horren harira

rotuko du bere musika alaiarekin, gitarra akustikoaren laguntzaz runba doinuak ekarriko baititu. Iluntzean, ostera, Sofokaos eta Sakabidean talde nafarrek bestelako musika eskainiko dute. Antsoaingo Sofokaos taldeak punk rocka egiten du eta Iruñerriko Skabideanek, bere izenak dioen bezala, ska dantzatzen jarriko du Txaltxa Zelaia.

Jaietako musikarekin amaitzeko, 25 gaueko festa aprobetxatuta, 08:00etan karropoteoa egingo da Miren Gisasolak girotuta.

**Gazte Egunak 15 urte**

Aurten Gazte Egunaren 15. urteurrena betetzen da eta sasoi hartan jai herrikoiak antolatzen ibili zirenei omenaldia eskainiko diete ekainaren 24an, 18:00ak inguruan. “Ekitaldi sorpresa izango da, baina merezitako omenaldia eskaini nahi diegu”, esan digute jai batzordetik.

Txosnagunea gune segurua izan dadin, bestalde, eguaztenean Brigada Morearen asanblada irekia egin zuten. Bertan, erasoak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko tresnak emateaz gain, Sanjuanetako protokoloa azaldu zuten. Dena dela, saio gehiago egingo dituzte jaien inguruko eragileei eta tabernei informazio hori emateko, eta kontzientzia zabaltzeko.

Eta azkenerako bi ohar: Eibarko Jai Batzordekoek esan digute oraindik rifa batzuk dituztela salgai eta, gainera, sorpresak egongo direla datozen egunotan, Txolopotearekin batera beste gauza bat erosteko aukera egongo delako.




Ondo pasa
Sanjuanetan!


AMETSA
Gin Bar
Jaietan gozatu
*Ametsa Gin Bar*
eraro


casa
BANAKA
.BAR.
Calbeton, 26
Bueltan dira Sanjuanak!!!
GOZATU EGIZUZ GUREKIN!!!


Kili Kili
GOSARIAK / PINTXOAK / EGUNEKO MENUAK
AFARIAK / MERENDOLAK / OSPAKIZUNAK...
943 20 24 01
Ibarkurutze, 12


ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
FOXTER-ek bere gastronomia bikaina etxera eramaten dizu, igandetik ostegunera (20:00-22:30)
RAZIOAK • SANDWICHAK • BOKATAK
HANBURGESAK • MEXIKARRAK
Animatu eta deitu!!!
Plaza Barria, 6. / 943 121 255


BAR
EZ DOK
BERRIA
Toribio Etxebarria, 18
EZ DOK


CAFETERIA
BAISI
Gora SanJuanak!
URKIZU, 11 - Behea
Tel. 943 53 08 16


Goizeko 07.30etatik zabalik
ondo pasa Sanjuanak eta Sanpedroak!!
bar manuel
(JUANITO)
Urkizu, 5
943 12 16 57


BAKO LEKU Ardotegia
Ego Gain 2-4 Tel. 670 55 67 56

# Bi urteren ondoren, inoiz baino omendu gehiago



Azken bi urtetan ezin izan direnez jaiak normaltasunez bizi, omenaldia merezi dutenen merituak ere pilatzen joan dira eta oraingoan gure herriko aurreko jai nagusien bueltan izan direnen kopurua handitu egin da. Jon Iraola alkateak ere horrela zioen jaien aurkezpenean: "Azken bi urtetan omendu ezin izan ditugunak orain jasoko dute gure errekonozimendua. Betiko lez, Eibarko esparru kultural, sozial eta kiroletakoak kontuan harturik omenduko ditugu pertsona, klub eta entitateak".

Omenduek, jakina, eta ohikoari jarraituz, jaiei hasiera emateko Lizarrako dultzaineroekin egiten den kalejiran hartuko dute parte, eta baita udaletxean egiten den pregoian eta txupinazoan ere. Honakoak dira aurtengo omenduak: J.D.Arrate eta Eibar Eskubaloia eskubaloiko taldeak (75. eta 10. urteurrena betetzen dute, hurrenez hurren), Jesús "Txus" Alzaga (40 urtez CD Urkirekin lotua), Manu Aguirre (Eibarren judoa sustatzen egindako lanagatik), Maite Arroitajauregui musikaria (Goya saria lortu zuen musika original berriari Akelarre filmaren soinu-bandagatik), Mikel Oyarzabal futbolaria (2021eko kirol-lorpenengatik), UEU (50. urteurrena bete izan duelako aurten), Aspace elkartea (hau ere bere 50. urteurrenean) eta Ekingune ekintzaileen elkartea (bere 10. urteurrenean).

Aurrekoarekin lotuta, ezin dugu ahaztu Maite Arroitajauregi eta Mikel Oyarzabal lehen ere, pandemia sasoian, omenduak izan zirela, iaz jaso baitzuten Txopitea eta Pakea saria; orduko hartan omenaldiak ateak itxita eta murrizketak indarrean zirela egin behar izan baitziren. Iraola alkateak ere bere interbentzioan esan zuenez, "bueltan

BENICOBA
ETXEKO TRESNAK
J. Gisasola, 12-14
943 20 39 02 / 606 83 83 61
San Juan zoriontsuak!







dira Sanjuanak eta egitarau oso bat egongo da jaietan haietaz gogotsu disfrutatzeko. Askotariko jardueraz betetako eskaintza bat, ezinezkoa litzatekeena herriko talde sozial, deportibo eta kulturalen partaidetzarik gabe". Aurrekoa kontuan izanik, eskerrak eman zizkien aurtengo egitarauan parte hartu duten 30 elkarteei.

### Egitarauan lagun

Urtero bezala, hainbat elkartek hartu dute parte aurtengo jai-egitaraua prestatzeko, Udalarekin batera. Honakoek osatzen dute aurtengo zerrenda: Amaña es la Caña, Amañako Jai Batzordea, Antzerki Laborategia, As Burgas Galiziako Etxea, Ballet Eibarres, Beheko Tokia, Biraka, Cielito Musika Banda, Danborrada, DYA, Eibar Igerixan, Eibarko Txirrindulari Elkartea, Emakumeen Mahaia, Gaste, Ipurua Gimnasia Erritmikoa, Kaleetan Kantuz, Kantabriako Etxea, Karnaba Zaleak, Kaxa, Kezka Dantza Taldea, Klub Deportiboa, Koro Gaztea, Musika Eskola, Nele, Odisea, Parrokiako Korua, Rugby Taldea, Sostoa, Tiro al Vuelo, Untzaga Jubilatuen Etxea, Usartza Txistulari Taldea eta Eibarko kuadrillak, ...eta kitto! elkartearekin batera.






# 27. Euskal Jaialdia jokatuko da domekan Untzagan

Euskal Jaialdia ez da atzo goizeko kontua Eibarko San Juan jaietan. 2018an ospatu zituen bere zilarrezko ezteiak eta, azken bi urtetan (denok dakigu zergatik) egin barik egon ondoren, berriro dator guregana, inoiz baino indartsuago. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen jardunak aurten lehenengoko asteburuan izango du bere hitzordua, hilaren 19an (domeka) izango baita, eguerdiko 12:30etik aurrera. San Juan jaietako egitarauan guztiz sendotuta dagoen Euskal Jaialdian, aizkolarien lanarekin batera, harrijasotzaileena eta txinga eramaileena ere ikusi ahal izango da, "Iparraldeko jokoen muestrarioarekin batera". Antolatzaileek diotenez, "gutxi gorabehera ordu eta erdiko iraupena izango du eta, ia betiko lez, osatuko diren hiru taldeen arteko lehia izango da erabakigarriena".



Parte hartuko duten kirolariei erreparatuz, hasieratik, "urterik urte, kalerik egin gabe", eibartarron artean "nagusitzen" joan den Ernesto Ezpeleta "Bihurri"k oraingoan ere bere onena emango du, gaur egun aizkolarien arteko lehen mailan dihardUen Hodei bere semearekin batera. Julen Mendieta Lemoako beteranoa, Goizeder Beltza eta Jon Telleria nafarrek eta Alex Txikon mendizale ospetsua izango dira beste lau aizkolariak, horrela seikotea osatzeko. Eurekin batera jardungo dute Ane Zinkunegi harri-jasotzailea, Nerea Egurrola txinga-eramailea (bera da Euskal Herriko txapelduna modalitate horretan) eta Karlos Aretxabaleta Iparraldeko jokoetan.



Nerea Egurrola Euskal Herriko txapelduna.



2019ko azken edizioan parte hartu zutenen amaierako podiuma, sari irabazleekin.

## Erakustaldia eta lehiaketa

Denetarik izango du oraingoan ere Euskal Jaialdiak, erakustaldiak eskaintzeaz gain lehiak ere izango duelako bere tartea, jokoen amaieran erabakiko dena. Hasteko, "hainbat erakustaldi eskainiko ditugu, aizkorarekin zutika, aitzurraz baliatuz eta esku bakarrarekin". Ondoren, "txingekin eta ingudearekin hainbat erronka prestatuko ditugu, Iparraldeko jokoekin errematea egiteko". Lehiaketa nagusian, bestalde, hiru talde osatuko dituzte, binaka aizkolarirekin, "eta harrijasotzeak, aizkora-lanak eta azkeneko korrikaldiak" osatuko dute proba hori.

**Ondo pasa Sanjuanetan!**





























Haurren danborrada San Juan egunean izango da eta 19:00etan irtengo da Urkizutik, Ustekabe fanfarrearekin batera Untzagaraino joateko.

Ohitura den bezala, Untzagan hasi eta amaituko da danborrada San Juan egunaren bezperan. Plazan bertan hasiko dira jotzen, gauerdian, San Juan egunaren lehen minutuetan: "San Juan ereserkiarekin" hasiko dira danbor hotsak, Eibarko Musika Bandak lagunduta. Bertan "Diana", "Donostiako Martxa", "Pantxika" eta ohikoak diren beste kantu batzuk jo eta gero, Urkizuraino kalejiran joango dira, atzera ere Untzagara buelta egiteko. Bidean Calbeton, Bidebarrieta, Arragueta, Ibarkurutze, Errebal eta Toribio Etxebarria kaleak zeharkatuko dituzte.

# Aurten berriz ere entzungo ditugu danbor hotsak herriko kaleetan

Aurten ere Juan Luis Baglietto "Manli" izango da Danbor Nagusia eta Marruko kainoiaren eztanda ere entzungo dugu, plazan bertan bi salba botako dituzte eta. Bestalde, Jon Iraola alkateari lehen aldiz egokituko zaio zuzendari lanetan aritzea, Untzagatik irten aurretik. Ignazio Zuloagaren omenez apaindutako karroza gainean, berriz, Udal Dibujo Eskolako ikasle eta irakasleak, tartean karroza urtero apaintzen duen Leire Kareaga joango dira oraingoan.

**Umeen danborrada**

Umeen txanda 24an, San Juan egunean ailegatuko da. Betiko moduan, 19:00etan hasiko da, parte hartuko duten 200 haurrak elkartu eta jarraian. Urkizutik irten aurretik, bertan "Diana" eta "Pantxika" joko dituzte eta "Tatiago" kantuarekin irtengo dira, Ustekabe fanfarreak lagunduta. Lehen geldiunea Ibarkurutzen egingo dute: "Retreta", "Mutriku herria", "Danborren polka" eta "Hau dek hau" eskainiko dituzte bertan. Ondoren, 20:00ak aldera ailegatuko dira Toribio Etxebarria kalera eta, "Eibarko Martxa" jo eta gero, atseden hartuko dute, zerbait jan eta edateko.

Amaitu eta jarraian "Idiarena", "Debako Martxa" eta "Hau dek hau" joko dituzte. Eta, Untzagara ailegatzean, pregoia irakurri eta han amaituko dute emanaldia, harmailetan daudenentzat jotzen: "Diana", "Pantxika", "Idiarena", "Debako Martxa", "Donostiako Martxa" eta "Tatiago" piezak eskainiko dituzte bertan.

BIC GIPUZKOA
UP! EUSKADI
Edificio Tekniker
Iñaki Goenaga kalea, 5. EIBAR
tel.: 943 00 09 99
www.bicgipuzkoa.eus bic@bicgipuzkoa.eus








Olinpiada Txikia J-A. Mogel Ikastolan

2022/06/11





# Lizarrako dultzaineroak ailegatzeko irrikitan

Azken bi urteotan horretarako aukerarik ez dugu izan, baina aurten berriz ere jendetza batuko da Estaziño kalean eta inguruan, San Juan egunaren bezperan ailegatuko diren Lizarrako dultzaineroei ongietorria emateko. Horrela, eibartar gehienentzat jaietako ekitaldirik gogokoena dena bueltan izango da eta sekula baino gogo gehiagorekin itxarongo ditugu gaiteroen lehen notak, jaiak eztanda egiteko.


Bi urte eta gero, sekula baino harrera beroagoa egingo diete eibartarrek Lizarratik etorriko diren dultzaineroei.

Ekainaren 23an, 13:00ean egingo zaie harrera Lizarrako dultzaineroei, tren geltokiaren aldamenean beraien omenez dagoen brontzezko irudiaren aldamenean. Udal ordezkariak eta aurtengo omenduak agurtu eta aurtengo Sanjuanetako zapia jantzi eta gero, orduan hasiko da Untzagaraino joango den kalejira, gaiteroen doinu alaiaren erritmora.

Eibartar askorentzat bereziki hunkigarria izaten den ekitaldia are hunkigarriagoa izango da, gainera. Izan ere, 2019an izan genuen Lizarrako dultzaineroei horrela harrera egiteko azken aukera. Edozein modutan ere, beraientzat ere une berezia izango da, askotan esan duten moduan, Eibar bihotzean daramate eta. Eta, ezer esango ez balute ere, nabari zaie gure artean gustora aritzen direla. Izan ere, pandemiak jaiak ospatzea galarazi dituen bi urteetan ere Eibarrera etorri dira, unean-uneko neurrietara moldatuta dultzainarekin eibartarrak alaitzeko asmoz.

Askorentzat Sanjuanak hasita egongo diren arren, beste askorentzat dultzaineroak etortzearekin batera hasiko dira jaiak, modu ofizialean bai behintzat. Aurtengo kalejiran, bestalde, oso ondo inguratuta joango dira Lizarrakoak. Izan ere, beste batzuetan baino elkarte eta eibartar gehiago omenduko ditu Udalak eta horiek guztiak ohorezko gonbidatuak izango dira jaien hasierako ekitaldian. Eta, jakina, gazteen koadrilak ere han izango dira, kamiseta, peto eta bestelakoen koloreekin txupinazoa alaitu eta girotzeko prest. 65 bat koadrila, 1.000 gazte inguru izango dira guztira.

30 urte eibartarron zerbitzura
Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com
EGOLAN
Julian Etxeberria 7, 7.-C
AHOLKULARITZA eta GESTIOA

**Ondo pasa Sanjuanetan!**


T. Etxebarria, 8
BAR BUENOS AIRES

KALAKA
Untzaga, 5

FAUSTO
kafetegia
GOSARIAK
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
OGITARTEKOAK
Kormen kalea, 1
608 133 535

CAFE EIBAR
GOSARIAK
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
OGITARTEKOAK
J. Etxeberria, 12
608 133 535

GASTROTEKA BOSSA
Ego gain, z/g
Ongi etorriak zuen etxera!!
943 20 67 53

URKIZU, 22 943128086
Aguiñaspi
ASTEBURUETAN MENU BEREZIAK
Plater konbinatuak, Razioak, Bokatak, Hanburgesak
lanegunetan 07:00etatik asteburuetan 08:00etatik

Añana
Untzaga Plaza, Eibar
943 043 782

Sokoa Pub

Zubi-Gain
URKIZUKO DORREETAN
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Tapak
Entsaladak
Pintxo bereziak...
Urkizu, 11 943-254060
ETXERAKO ZERBITZUA:
bapobapo.com

NEW
A DOMICILIO & TAKE AWAY
T. 943 56 72 06
HIRUROK BRASS
ostegunetik igandera
ERREKATXU, 1
19:30etik 23:30era

# Kalean barrezka antzerkiarekin



Sanjuanetan antzerkia kalera irteten da, hara eta hona jai giroan dabiltzan eibartarren artean nahastuz eta, zergatik ez, elkarri eraginez. Gaurtik hasita eta ia egun guztietan zehar, zenbait antzerki ikuskizun izango ditugu herriko kaleetan, umorea nagusi izango delarik.

Lehen saioa gaur bertan izango dugu, 19:00etan, Zirko Txosko konpainiaren eskutik. Taldeak 'Indartsuak' ikuskizuna ekarriko du Errebal Plazara, zirkoa eta umorea uztartuz. Oscar Paezek eta Ariñe Azkuek osatzen duten bikote eusko-galiziarraren saioetan clown--a eta akrobaziak dira nagusi, eta publikoa genero-berdintasunaren edo norberaren zailtasunei aurre egiteko garrantziaren inguruko hausnarketara eraman nahi dute.

Bihar, zapatua, beste saio bat izango dugu, oraingo honetan Mono Habitado konpainiaren eskutik. 'Benditas, todo viene del cielo' ikuskizuna eskainiko dute, "orbitaz kanpoko komedia", euren berbetan. "Artaldea larrean zaintzen ari diren bi emakumeri zerutik etorrita gertakizun batzuk gertatzen zaie. Ama Birjinaren presentzia, espazio-ontzi extralurtar bat, satelite espioiak, espaziora botata zaborra edo Marten dagoen bizitza seinaleak teleskopioz behatuta, aitzaki ezinhobeak dira gai batzuei buruz hitz egiteko, besteak beste, gizateria eta bere etorkizuna, filosofia, eboluzioa, feminismoa, gerra hotza...", gehitzen dute. Saioa 19:00etan egingo da Untzaga inguruan.

Antzerkiak hilaren 22an izango du jarraipena Tutik Clowns konpainia osatzen duten Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoen eskutik. Hirukoteak 'Petitxou' ikuskizuna eskainiko du, 19:00etan, Untzagan. Saioa umeei zuzenduta egongo da, baina helduek ere gozatu ahal izango dute ziurrenik. Pailazoek 25 urte daramatzate martxan eta "musikaz, magiaz eta emozioz beteriko saioa" eskainiko dute, euren berbetan.

San Juan bezperan, ordu eta toki berean, beste pailazo bat izango dugu: Anton Coucheiro. Ohetik eskainiko du ikuskizuna. Bai, ohetik. Izan ere, 'Sonambulo' da bere saioaren izenburua eta berba egin barik, far westeko bidaia batean bezala, lorik egitea lortzen ez duen bufoi baten ametsak ikusi ahal izango ditugu.

**Guztira sei kale-antzerki egongo dira: 17, 18, 22, 23, 24 eta 25ean, beti 19:00etan**

Hilaren 24an, 19:00etan, Asaco konpainiak Anbulatorioko parketik Untzagara saio ibiltaria eskainiko du. Ikuskizun honetan tanke bat pailazo baten atzetik ibiliko da eta barrez lehertuko du bidean aurkitzen duen jendea. "Gurugu menditik datoz eta tankearekin mugak berritzen ibiliko dira efektu bereziak erabiliz", diote antzerki konpainiakoek.

Hurrengo zapatuan, azkenik, Sanjuanetan gurean izan ohi dugun Trapu Zaharra konpainiak itxiko du jaietako kale antzerkiaren agenda. 'Por hacer un favor' ikuskizuna eskainiko dute 19:00etan, erdialdean, beti bezala umorea ekarriz. Bertan izu-atakea izan duen politikari baten istorioa kontatuko digute. "Hauteskundeak irabazteko faboritoa da, baina kanpainaurrean izu-atakea izaten du eta desagertu egiten da. Beraz, publikoaren laguntza beharko dugu arazoa konpontzeko", diote konpainiatik.

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da …eta kitto!-n. Zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue.**



Zorionak, **IRENÍ**, neska haundi, bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Asko maite zaittugu. Eder, aitta eta ama.



Zorionak, **MAREN** Txurruka Sanpayo, eguaztenian 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LUKEN** Garcia, hillaren 24an 10 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **AIORA**, eguaztenean 7 urte bete zenduazen-eta! Musu haundi bat famelixa guztiaren partez!!!



Zorionak, **LUKA** Lopez Amas, hillaren 24an 5 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **JULE**!!!! Gaurko egunian 9 urte gure artera etorri ziñanetik. Patxo haundi bat etxekuen partez!!!



Zorionak, **NOLWENN**, etxeko erregiñaK atzo 7 urte bete zittuan-eta. Jarraittu holan, asko maite zaittugulako.



Zorionak, **LOREA**. Martitzenian zure urtebetetze eguna ondo ospatuko zendualakuan, jasoeizu patxo potolo haundi bat. Etxekuen partez!!




## Juan Luis Baglietto Arrizabalaga

**8. URTEURRENA**
2014/06/16

**"Zure irribarreak eta maitasunak gure bihotzean diraute"**



**MAITE ZAITUGU**
**- ETXEKUAK -**

# Iragarki laburrak

688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Bikoteak (alabarekin) pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. 2-3 logelakoa. 664823992.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziak. 667059774.
- Donostian pisua alokagai uztaila eta abuzturako. Zurriola hondartza ondoan. 33 metro2. 150x190ko ohea. Labadorarik ez du (metro gutxira labanderia). Bi hilabeteak: 2.500 euro. Hilabete osoa: 1.200 euro; 20 egun, 1.000 euro. Argazkiak bidaltzen dira. 747447151.
- Deban etxe bat alokagai da abuzturako, herri erdian. 677336775.
- Senar-emazteek pisua hartuko lukete alokairuan Eibarren. Erreferentziekin. 667060292.
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Minusbaliatuentzat egokitua, igogailuarekin 0 kotan. 671101439. Carmen.
- Logela hartuko nuke alokairuan. Kontratuarekin. 632088660.
- Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (garajea aukeran). 2019an guztiz erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 678222229.

## 3. LOKALAK

### 3.1.. Salgai

- Lokala alokatu edo erosiko nuke zezen-plaza inguruan. Edozein egoeran dagoela. 609885710.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. 722408667.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 642782903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia hoteleko lanetan. 624660035.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Titulazioa eta esperientziarekin. 641322939.
- Neska eskaintzen da goizez umeak zaintzeko. Orduka. 616779825.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo emakume nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketak egiteko. Autoarekin. 612223075.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 611051983.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Nagusiak zaintzeko ziurtagiriarekin. 622233171.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 624640803.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. 602074398.
- Neska eskaintzen da etxeko garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Orduka. 641588274.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientziarekin. 631170273.
- Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). 692932984.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631143972.
- Neska eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631787654.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 666685184.
- Neska eskaintzen da goizez umeak eskolara eramateko eta arratsaldez jasotzeko. 649025614.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 632419944.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldez edo gauez nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Erreferentziekin. 610667535.

### 4.2. Langile bila

- Idazkaria behar da aholkularitza batean. Orduka. luengo41@gmail.com
- Elgoibarren interna (50 urtetik gorakoa) behar da baserri batean. Autoa eta zaintzaile-ziurtagiriarekin. 653723095.
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Curriculuma Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitatea prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Ponyak saltzen dira. 679824081.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. 688624326.
- DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637587811.

### 6.2. Eman

- Alemaniar-artzain bi txakur oparitzen dira. 612298060.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

HEOI EIBAR
Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas

# Eibarko Hizkuntza Eskola




## DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS



**IKASTARO ERDIPRESENTZIALAK**
hizkuntza guztietan
– eskolan eta on line (Moodle plataforma) –

Arrasaten eta Azkoitian
**GELA DESPLAZATUAK**
ere badauzkagu



***14 urtetik gora:** *Frantsesa eta Alemana* (eskolan Ingelesa atzerriko lehen hizkuntza bada).
**16tik gora:** Edozein hizkuntza.

**14 urtetik gora***

Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:
www.eoieibarheo.hezkuntza.net
IKASGUNEA plataformaren bitartez
Ikasturte osoaren prezioa: **72,36 euro**

HOEI

EOI Eibar HEO    Otaola Hiribidea, 29    943-899275    eoieibarheo@gmail.com

EIBAR
HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

San Juan jaietan

# IRRIBARRERIK POLITENA

erakutsi ezazu

- Odontologia orokorra
- Haur odontologia
- Hortz zuritzea eta estetika
- Ortodontzia
- Protesi finkoa eta kentzekoa
- Kirurgia eta inplanteak



San Agustin Kalea, 4 behea ezkerra
20600 Eibar (Gipuzkoa)

943 537 076 · 688 884 808
info@eibarclinicadental.com

R.P.S. 72/19 MAITANE G. IÑIGUEZ - ODONTOLOGIAN LIZENTZIATUA